

	OÑATIKO UDALA	
	Erregistro Data	
2021 MAI 24		
SARRERA	IRTEERA	
1934		

Oñatiko EHBildu Udal Taldearen mozioa: Palestina

Israelgo auzitegiek Jerusalemgo Sheikh Jarrah auzotik hainbat familia kanporatzeko eta Israelgo estatuko segurtasun indarrek Al-Aqsa meskitaren aurka egindako erasoaren ostean, Palestinako tentsioa gogortu egin zen berriro.

Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroak asteartean, maiatzak 11, iragarri zuen Israelek Gazaren aurkako erasoak areagotuko dituela, eta dagoeneko 43 pertsona hil direla, horietako hamahiru adingabeak. Zisjordanian gutxienez bi gazte hil dira, horietako bat adingabea. Ildo horretan, azken egunotan ehunka bonbardaketa egin ditu Israelek

Gazan.

Israelgo armadak 5.000 erreserbista mobilizatu ditu eta iraupen zehaztugabeko erasoaldi baterako prestatzen ari da.

NBEk ohartarazi duenez, indarkeria maila horrek eta horiek Palestinako biztanleengan dituzten ondorioez ohartarazi du.

Gertakari horien aurrean, Oñatiko Udalak:

- Israelek Palestinako herriari egiten dizkion giza eskubideen urraketak salatu ditu. Ildo horretan, nazioarteko komunitateari dei egiten dio erasoaldi militar hori geldiarazteko eta elkarrizketarako eta negoziatorako bideei berriro ekiteko, Mahmud Abbas Palestinako presidenteak Europako erakundeen laguntzarekin Nazioarteko Bake Konferentzia bat egiteko egindako eskaera babestuz.
- Nakbaren 73. urteurrenean, Israelek lurralde palestinarrak legez kanpo okupatzea salatu eta gaitzesten du, eta, aldi berean, elkartasuna eta konpromisoa adierazten du herri palestinarraren giza eskubideen defentsarekin, Nazioarteko Zuzenbideak ezartzen duen bezala.
- Palestinarako laguntza humanitarioa indartzeko eskatu die **euskal/Nafar** erakundeei, pandemiak are gehiago areagotu baitu haien egoera.



Izaro Elorza Arregui

